

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pepi Berasategi Etxeberria

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Benta Berrin jaioa, 21 hilabeterekin Andrestegi etxera (Ibaeta) joan zen bizitzera, amarekin eta anaiarekin. Amonarengana. Izan ere, gerra hasi zenean aitari Lizarriturri xaboi lantegira bila joan zitzaizkion; Ondarretako kartzelara eramán zuten, eta gero desagerrarazi. Hernanin hil zutela uste du, baina ez daki non lurperatu zuten. 31 urte zituen. Min hori barru-barruan dauka oraindik Pepik. Amak etxez etxe garbitzen egin behar izan zuen lana, eta etxean gabardinak josten ere bai, izebarekin eta, familia aurrera ateratzeko. Pepi amonaren arrimuan hazi zen. Baratzean, enkarguak egiten, errekan arropa garbitzen... Lehenengo eskolabetera joan zen eskolara, eta gero "Nuestra Señora de Lourdes" ikastetxera, Antiguako elizaren ondoan. 17 urterekin "Confecciones El Barato"n hasi zen lanean, eta ezkondu arte ibili zen bertan; La Perla inguruan zegoen tailerra. Oinez joaten zen egunero. 19 urte inguru zituenean, jatetxea jarri zuten Andrestegin.

Zintak

DON-024

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-30
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

DON-157

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

- **Data:** 2013-05-01
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Antiguako lantegiak eta labaderoa

- **Erref:** DON-024/003
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak

Laburpena:

Bentaberri inguruan zer zegoen azaltzen du. Tolosako tranbia konpainia. Azurmendi eta Zubia tabernak. Lizarriturriko lantegia. Suchard. Zapatari. El Leon garagardo lantegia. Amilibia eskola. Setien-Rekondo. Erregezainen kaleko lantegiak; labaderoa; baserriak. Ayala lantegia.

2. Lizarriturri xaboi lantegia eta Antiguako hainbat negozio

- **Erref:** DON-024/004
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:09:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarreneneko lantegiak

Laburpena:

Lizarriturri lantegian xaboiak egiten zituzten. "Guris" krema. El Leon lantegian eta hor zebilen jende gehiena. Dendetara saltzen zuten. Zatarain drogeria; gero Carmelo jarri zuten. Villa Aurora bota zutenean, bizitzak egin zituzten. Heriz pasealekuan zein negozio zeuden: Laureano arrandegia. Villa Arcadia, Arnedo taberna, Setien bordatuak... San Rafaelgo neskaitsuak. Marianistak eta kuartelak.

3. Columbia disko lantegia eta El Leon lantegia

- **Erref:** DON-024/005
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:09:18. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Columbia disko lantegia. Jela ere egiten zuten hor. El Leon garagardo lantegian ere bai. Sifoia, Casera, gaseosa, orangina... La Pitusa Erregezainen kalean zegoen.

4. Antiguako sagardotegiak eta negozio batzuk

- **Erref:** DON-024/006
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Sagardotegiak, Illarraberri aldean. Sagardo garaian Casimiro, Matia kalean. BBV dagoen tokian, mertzeria handi bat zegoen eta tarteka sagardoa ere izaten zen han. Ventura okindegiaren tokian Aldaba erretegia dago gaur.</p>

Transkripzioa

-Eta, sagardotegirik bazeon, hemen?

-Sagardotegik? Hemen? Illarraberri aldian izaten zan hoi gehiyo, o sea hoi ya, pixkat apartatubaua. Bai han, han hola izaten zian, 'únicamente' hemen izaten zian txandaka bat hemen Matia kalean Casimiro, baiña izena sagardoteiyana ez naiz goatzen, baiño hola epoka ateatzen zanian, bee txandetako ta zea hoi're ba, izaten zian. Eta goatzen naizena da gaurko eunian Banco Bilbao y Vizcaya, uste det hor'e izaten zala, eta ume bastante koxkorra nitzanian, [...] haundi-haundi bat eoten zan hor, ta justu goatzen naiz harrena [...] haundi-haundi bat. Eta geo jarri zuen, esto materialak eta, 'central de materiales''e jarri zuen, ta hua're ba kendu in zuen, ta tarteka tarteka ba sagardua're, hor'e eoten zan. Urtian behin o bi aldiz o, izaten zan. Eta besteik ba momento hontan ba, 'únicamente' gaurko eunian ba... Geo Panadería Ventura, hua're goatzen naiz, ta gaurko eunian ba ez du existitzen, existitzen du Asador Aldaba, gaurko eunian.

-Lehen [...] zegon tokian?

-Bai, bai. Hor, beak iten zuen dana. Hor beak ogiya in ta ogiya saldu ta, danak hor iten zuen, ta geo klaro, banatu're iten zituen. Hoi ta, besteik, momentu hontan...

5. Eskolara eliza ondora

- **Erref:** DON-024/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Eskolara eliza ondora joan zen: Nuestra Señora de Lourdes. Bi ahizpa ziren maistrak, zorrotzak. Erdaraz. Eskolabetan hasi zen lehenengo. Maisu-maistren zigorak. Makila.</p>

6. Matia kaleko negozioak

- **Erref:** DON-024/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Matia kalean Rich beti ezagutu du. Antiguotarra okindegia. Paris tintoreria. Ferreteria. Estanko bat ere bazegoen. Gizonen ile-apaindegia, Aldasoro; emakumeena Egaña zen. Emili ile-apaindegia.

7. Umetako jolasak: sokasaltoan

- **Erref:** DON-024/010
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:17:22. **Bukatu:** 00:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gutxi jolastu zuen umetan. Eskolan bikoetara eta Avilara jolasten zuten, sokasaltoan. Txingoak. Gordeketan. Cuatro esquinas.

8. Gerra hasi zenean, aita hil zioten

- **Erref:** DON-024/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Andrestegin bizi izan zen umetatik, amarekin, amonarekin eta izeba-osabekin. Gerra hasi zenean, aita Ondarretako kartzelan sartu zuten. Azaroaren 7ra arte, ama egunero joan zen bazkariarekin kartzelara, baina egun hartan esan zioten libre utzi zutela. Ez zen egia. Askoz geroago jakin zuten Hernanin hil zutela, egunkariaren bitartez.</p>

Transkripzioa

-Ta ordun ba gerra hasi zanian izango zan, e, bakit, “esto”... E, urrian hogeita beatzin aita harrapatu zuen, eta izango zan osteunakin. Zeatikan “época” haiyetan jai izaten zan osteuna atsaldetan. Eta ne anaya ya juden zan eskola, ta ordun egun hartan jai zun, eta jun... jun zan nere ama amona bixitatzea, egun hartan. Eta geo etorri zanian billatu zan esan ziyola aldamenekuak, Isabelek: “Josepa, Poli kartzela eaman dute”. “Keba!”, ta “bai”. Ta ordun esan ziyon: “Utzi tzazu hemen umiak”. Nik ez dakit zenbat denbora, baiño beak askotan hoi kontatzen zun, zeatik amak esaten zun: “Nik hoi ez det behin ere estimatuko andre horrei ze in zun zuekin egun hartan”. Eta “jun zaitea kartzela”, eta jun zan, ta etorri zan ta: “Bai, han do. Eta eskatu nun manta ta afariya”. Eta orduan beak esaten zun: “Ni etortzeako bea ya afariya zuei emana zan”. Ta klao, pentsatuko dezun, pentsatuko dezun bezela, gui oyera sartuko zigun, baiño bea? Ze gaba pasako zun! Jun zan hurrungo egunian bazkariyakin ta gauzakin, eta azaroak zazpi arte eunero-eunero bazkariyakin. Eta jun zanian azaroan zazpiyan, etxea bialdu zituela. Ezetz, etxea ez ziala azaldu! Eta ez zala etxian. Beak jakingo zuela noa jun zian. “A, bai? Guk jakin in behar deu gue gizonak... noa, nun den”. Zeatikan beak esaten ziun kamioitikan... Bueno, malkuak ateatzen zaizkit askotan, e, esateakuan. Kamioitikan karraxik nola iten zituen: “Mujeres, querer a nuestros hijos”. Eta bat omen zeon, harren gizonen hotsa iruitu omen zitziayon. Eta harrek beti gauza hoi: “Nik ne gizonen hotsa sartuba dakat”.

-Jooo.

-Bea balin bazan ez balin bazan, harrei hoi iruitu zitziayola.

-Eta Ondarretako kartzelan eon zan?

-Bai, e, “esto”... urria hogeita beatzitan azaroan zazpi arte. Ta azaroan zazpin eaman zituen. Ta eaman zituen, geo jakin gendun, Hernania. Ta Hernanin bakiu han hil zutela, zeatikan egunkariak bere egunian, Egunkaria zan ordun, ekarri zun... beira, “precisamente” argazki hoi handikan ateria do. Argazki hoi, eta esan zun hor ezautzen zana zala bakarrikan, argazki hortan, Donostikoak nola zian labak: Hipolito Berasategi. Eta hoi da nere aita. Eta klaro, orduan ba periodiko hoi in gendun hartu.

9. Aitaren argazkia egunkarian

- **Erref:** DON-024/014
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:23:08. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Errepresioa](#)

Laburpena:

Ez zekien egunkariko argazkiko lau gizonetako zein zen bere aita, eta auzoko emakume bati galdetu zion. Kamioietan eramaten zituzten. Argazkiko bestiak zein ziren ez daki. Gorpua ez da agertu.

Transkripzioa

-Eta anaiyak esaten zun bat, baiño bea nola banekin nun zan bizituba, hango laun batei ne periodikuakin, boltsan eamaten nun, eta esan niyon. Nik bezala dauka izena: Pepi. Eta esan nion: "Pepi, aber, hau eakutsi bihar dizut /biaizut/". Hola, "hau da zue aita". Hua besarkada eman niyona andre horrei! Esaten du /esateu/ beak, e! "Horrek eman ziten /emantziten/ besarkada iñork ez daki".

-Klaro, zuk ez zenun ezautu eta...

-Ez.

-Eta zure aitakin batera beste zenbat eraman zituzten badakizue edo ez?

-Kamioitan. Ideak' e! Kamioitan eamaten zituen, eta ezta ikusi're. Baiño geo argazki hoi nunbaitetikan atea zan, eta ordun argazki hortatikan egunkariak jartzen zun egun hartan hoik nola lau Donostikuak zian, eskribituta atzetikan: «Somos cuatro de Donosti, por si algún día nos reconocéis». Eta han izena nere aitan bakarrikan jarri zuen. «El único reconocido en esta foto, Hipolito Berasategi». Ta hoi da nere aita.

-Eta hori... baiña hori handik urte askora, ezta?

-Bai, bai, bai.

-Orduan zuk zure aitan fotografiarik ikusi... ez, hori, fotografiarik ikusi gabe...

-Bai, e, bai, hemen... zea badet bat, bere bodakua. Bueno, bere bodakua, hoi ezta? Bodakua, eta beste bat nere anaiya txikiya zanian besotan. Osea, hoik ikusiyak ditut, bai.

-Eta bizimodua, orduan... Gero, bueno, gorputza-eta ez zan azaldu, ala...?

-Oaindik ez da azaldu.

-Ez da azaldu?

-Hirurogeita hamahiru urte itea dijua, zeatik sartzen dan hille hontan ingoitu hirurogeita hamahiru... Bai, ni hamabost urte itea nijoa... E, esto, harrapatu zuela, eta ya amak ez zion /etzion/ gehiyo ikusi. Kartzela eamaten ziyon bazkarik eta gauzak, ta ya amak ez ziyon /etziyon/ gehiyo ikusi. Eta klaro, esaten zun, nik hogeita bat hillabetekin, ba hoi... beak, beak, e... Eta esaten zuena: Hara jun giñan ta hola ta hola esan ziguen /esantziguen/ ta etxea. Ta ezetz, ta ezetz. Eta ez paldin bagendun paliza haundi bat hartu nahi, alde iteko handikan. Ta berriz'e etxea etorri behar. Istoriya hoi da aitana dakitena.

-Orduan lorak nun jarri ere ez daukazue, ez?

-Batzuk, klaro... suposatzen gea Hernanin eongo dala, baiño eske batzuk, e, eaman zituen "al valle de los caidos", baiño nik hoi aitu nunian... ez dakit, telebisiyuan aitu nun eo aituko nun radiyuan, hoik ziala hemengo jendia... e, igual Asturiasen ta /da/ hildakuak, haik "al valle de los caidos". Baiño guria Hernanin da.

-Bai, bai.

-Ta ordun ez dakiu /eztakiu/. Suposatzen gea Hernanin eongo dala, baiño... ez dakiu /eztakiu/.

10. Ama lan eta lan; amonarekin haziak

- **Erref:** DON-024/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Lizarriturri lantegian egiten zuen lana aitak. Desagerrarazi zutenean, amak etxeak garbitzen atera zuen bizimodua; ahizpekin gabardinak josten ere bai, denda baterako. Ez zuten ikusi ere egiten. Amonarekin hazi ziren. Amona Andrestegikoa zen. Aita Burgosen jaioa zen, eta Lasarten bizitua.

Transkripzioa

-Zu pixkat handitzen joan ziñanian ta, hor bizimodua zailla izango da, ezta? Aitak zertan iten zun lana?

-Lizarriturriko fabrikan.

-Lizarriturrikuan?

-Bai, jaboien ta zea hoi. Lizarriturriko fabrika.

-Eta orduan, gero aita falta, eta zuek, e, aurrera in behar.

-Bai, bai.

-Zure ama egoera txarrian geratu zan...

-Bai, hala gelditu zan.

-Eta ze iten zun, berdura-ta saldu?

-Amak? Interina! Harrapatze... Ateatzen zizayon etxe guzik! Goatzen naizena da: bat "donde Vivanco", Julianategi. Geo bestia hemen, Matia kalean, Altuna. Geo, Gaitan de Ayala, Itsasgain... "O sea, es que" ama ez gendun ikusten! Eta geo etxea jun ta...

-Lan ta lan.

-Bai, geo etxea jun ta... Ahizpak gabardinak josten eoten zian, eta han eoten zan, gabardinak-eta josten. "O sea", guk, ez dakit zenbat ordu're amak iten zun lana.

-Eta izebak eoten zian gabardinak josten... eta norako? Hori enkarguz, ala...?

-E, denda bateako.

-Denda baterako.

-Bai. Denda bateako.

-Eta janariya-ta nork prestatzen zun, amak?

-Amonak, amonak, bai. "O sea", gu amonakin haziya gea.

-Amona, lehen esan dezu, bertakua da, Andrestegin jaiyua.

-Bai, bai. Uste det amona're han jaiyua zala, uste det, e. Ama-ta hoi behintzat bai, hoi bai, Andrestegin jaiyuak dia. Eta amona're uste det baietz. Ta ne anaya're han jaiyua da; ni ez, baiño ne anaya bai, Andrestein. Ze ez dakit zenbat jeneraziyo... amona, ama, anaya... bueno, aman famili dana hor jaiyua da... hiru jeneraziyo behintzat hor jaiyuak dia.

-Eta aita nun...

-Nere aita, jaiyua? Burgosen.

-Burgosen jaiyua.

-Nere aita bai, nere aita Burgosen jaiyua zan. Geo Lasartea-ta etorri zian, baiño... esto, geo nola hasi zan fabrikan lanian, ba Lizarriturri, [...] etxian eoten zan.

11. Amona plazara berdurarekin; Donostia erre zutenekoa

- **Erref:** DON-024/017
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:29:35. **Bukatu:** 00:32:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Andrestegin baratzea zuten. Amona Antiguako plazara joaten zen otarra buru gainean hartuta. Zaldi-karroa izan zuten lehenago, eta Parte Zaharrera joaten ziren esnearekin. Amonak gogoratzen zuen Donostia nola erre zuten. Bidea nondik zegoen garai hartan.</p>

Transkripzioa

-Eta zuek han, Andrestegin, baratzian zer izaten zenuten?

-Ba danetatik pixkat.

-Berdura?

-Bai. Danetatik pixkat. Bainan denboan ba bainak, azelgan denboan azelgak, eta "o sea", danetatik pixkat.

-Eta etxerako, ala saltzeko ere bai?

-Ba amona etortzen zan /etortzezan/ plazara. Otarra haundik nola izaten zian...

-Buru gaiñian jarrita?

-Bai.

-Eta nora, plazara? Ze tokitara?

-Hemen, Antiguan.

-Antiguan?

-Bai, ordun hor zeon /hortzeon/ plaza ta horrea etortzen zan.

-Ta nola etortzen zan? Astuakin?

-Keba! Ez zeon /etzeon/ astoik. Buru gaiñian!

-Buru gaiñian, e... Ba badao bidia, ezta, handik haraiño...

-Baiño... bai. Astoa nik ez det ezautu, baiño ne amak esaten zun epoka haiyetan zalদিya izaten zuela. Zeatikan epoka haiyetan, nere amonak kontatzen zun bea nola juten zan alde zarrea, esnia eaman ta /da/ itea, karruan. Geo hoik danak kendu in zitun, klaro, situaziyuak´e... asko aldatu zian. Eta be... ez dakit ze fetxetan, jun zian /juntzian/ alde zarrea, ta billatu zian alde zarra dana erreta! Erreta! Eta ordun amonak iten zun: "Ai, Maritxu gaixua! Tere, Carmen ta /da/"... bestia ez dakit. Lau, lau esaten zitun. "Nola hill ote zian emakumi hoik!" Beti esaten zun. "Nola hil ote zian!". Surtan! Ez zian /etzian/ azaldu! Erre zuen, ta klaro, esaten zuen frantsesak ziala, baiño telebisiyuak, ezta denboa asko, haik italianoak...
-Inglesak eta Portugal...

-Inglesak eta portugesak. Zeatikan frantsesak etortzen zian, ta /da/ esaten zuen alde zarreko jendiak, ta amonak´e bai, esto... oliyua irakiña nola botatzen ziyoen frantsesai, ez sartzeko. Lapurtzea-ta etortzen zian.

-Orduan frantsesekin geizki eta gero, inglesak etorri zianian okerrago...

-Ta geo zea... inglesak, portugesak eta italianoak dana kiskaldu! Bueno, hori ez do /ezto/ agostua 31ko zea bakarrikan konserbatu zan...

Horreatikan urtero-urtero hor iten due /itedue/; hoi bakarrikan, eta gaiñeakua dana berriya da.

-Eta hori zure amonak ikusi zun?

-Erreta, bai.

-Erreta?

-Bai.

-Orduan e, uuuu, gogorra izango zan...

-Bai, eta ordun biria ez zan /etzan/ behetikan, ordun... gaurko eunian Palacio Real don tokiya zan biria kalea juteko. Ta ordun geo behetik hoi dana playai kenduba da. Hoi amonak kontatzen zun. Hoi dana playako zea, ta geo ze pasatzen da /pasatzea/? Itsasua hasarre donian, be terrenua eskatzen! Ta orduan ze olatu ta ze gauzak! Nun puskatzen du /puskatzeu/?

Hor, ta harrapatzen diyonai /harrapatzeyonai/ ba...
-Klaro...

12. Ondarretako hondartza eta turistak

- **Erref:** DON-024/019
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:36:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

Ondarretako hondartza. Kasetak alokatzen zituzten. Loretope toldo handi bat jartzen zuten, pobreentzat. "Niños litris", ume aberatsak. Kanpotar asko etortzen zen udan; dendetan lehentasuna zuten haiek. Etxeak eta logelak alokatzen zituzten.

Transkripzioa

-Euzkiya hartzeko-ta ibiltzen zan, ta ordun txabolak jartzen zituen alkilatzeke. Bai. Hoi da, hoi goatzen naiz. Klao, ni orduako ya ba izango nitun hamar... hamar-hamaika urte izango nitun. Eta ditut launak esaten duenak, hoik hemen bertan nola bizitubak dian, e... nola Pico Loroko zea hortan, e, toldo haundi bat jartzen zuen...
-Loretope, hori Loretope da, ezta?
-Bai, bai. Esto... toldo haundi bat nola jartzen zuen, eta: "El toldo de los pobres". Baiño ordun hor osatzen zian kuadrilla haundik eta ibiltzen zian jolasten... pasatzen zuen "formidable"! Eta klao, "lo niñ...", epoka haiyetan "los niños litris" esaten zizaiyon txabolak-eta izaten zebenak. Eta haik: "A, pasais envidia? Aguantaros, que pa eso robais el dinero!".
-Joe... eta orduan txabolak izaten zian... e, bueno, kasetak, egurrezkuak?
-Bai.
-Eta idiyak tiratuta ta hola mugitzen zian ala ez?
-E, ez det /eztet/ uste, nik hoi ez det /eztet/ ikusi.
-Gurdirik bazuten?
-Bai, hoi bai, uzteko hor ta hoi ba bai, baiño nik hoi ez det hola ikusi... ez det ikusi behintzat, ez dakit. Ta ez due /eztue/ behin ere esan ibiltzen zianik... Geo erretiatzen zuen, ta geo ateatzeko ba kurpillak-ta bihar. Desmontatzen zituen danak, eta geo danak zeatu, ta geo... epoka alleatzen zanian ba berriz´e. Ta geo hasi zianian beste ze hok, telako gauzok.
-Toldo...
-Bai, bai.
-Toldo urdiñak.
-Eta oain... oain hoi eozeiñek alkilatzen du /alkilatzeu/, baiño epoka haiyetan...
-Garestiya izango zan. Ta hemen turis... etortzen zian uda partian-ta kanpotarrak...
-Bai.
-Madril aldetik-eta...
-Bai. Asko.
-Asko?
-Asko.

-Eta haiyek diferente jazten zian?

-Jantzi, ta bronka earrak eta askotan dendeta jun ta /da/ predileziyua, ta amorraziyua ematen zizun! Esaten genduna: "Hemen gu urte guzin gaudez gastatzen, e, eta hoik etorri dia ta zer? Hoiyen... gue dirubak ez al diyo baliyo hoiyen bezelakuak?". Ta bronkak izaten gendun, e.

-Haiek lelengo, orduan, beti?

-Bai.

-Preferentziya?

-Bai, bai, bai. Oooo... hortan izugarrizkoa izandu da hemen, horta bai.

-Eta hemen ze etortzen ziran, villetara eta holako etxe dotoretara?

-Bai, villeta ta geo etxe normalak´e eoten zian alkilatzen zuenak, e. Udarako. Bai, zeatik igual jendiak esaten zuna: "Ba habitaziyua daukat libre eta, habitaziyua nola libre daukaten, ba udaran alkilatu, pezeta batzuk atea-ta iteko!". Ta jendeak´e... etxetan´e holaxe ba hartzen zituen, ta hola ba pillan gehixeo jartzen zian ta igual habitaziyo paren bat, ta klao, pezeta batzuk ateatzen zituen udaran. Etxe asko´re eoten zian. Bai, hoi dana goatzen naiz, zeatik launak eskolan izaten gendun ta /da/... haik esaten zuen: "Sí, ha venido fulano y ha venido mengano, y dos habitaciones a ellos". Ta ordun haiyen amak esaten zuna, alde iten zuenian: "Ba pezeta batzuk utzi ditue!". Ta ordun ba gastu batzuk kubritzeko ondo etortzen dia /etortzeya/. "Umien liburuk ta gauzantzako diña ba ematen gaitue".

13. Gerraostean goserik ez; arraina

- **Erref:** DON-024/020
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:36:11. **Bukatu:** 00:38:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

<p>Gerraostean goserik ez. Baratzea, oiloak, arrautzak, esnea bazituzten. Arraina eta haragia faltako ziren. Antiguako arrandegiak, lau. Antxoa, akula (aguja), txitxarroa.</p>

14. 17 urterekin hasi zen lanean, josten

- **Erref:** DON-024/022
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:41:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Confecciones El Baraton hasi zen lanean 17 urterekin, Perla parean. Aurretik, amonari laguntzen zion. Propinarene ordez latak ematen zizkieten. Babarrunak egunero, igandetan garbantzua.

15. Txerria hiltzen zuten; odolkiak

- **Erref:** DON-024/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:41:02. **Bukatu:** 00:42:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Txerria izaten zuten. Odolkiak nola egiten diren. Hesteak betetzeko tresna eta haragia txikitzekoa. Amona Luisa arduratzen zen etxeko kontuez.</p>

16. El Barato tailerrean lanean

- **Erref:** DON-024/024
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>25 bat lagunek egiten zuten El Barato tailerrean lanean. Alkondarak, pijamak, kamisoiak... El Barato almatzenak bulebar ondoan zeuden. Soldata ez zen altua, baina seguruarekin. 25 urte arte. Oinez joaten zen. Ez zegoen trafiko handirik. Bentaberrin ematen zuten buelta autobusek; hiru geltoki zituen Antiguan.</p>

17. Zinemara joaten ziren Igeldora

- **Erref:** DON-024/025
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:48:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Tranbiak: Monte Igeldo eta Bentaberri. Oinez joaten ziren Igeldora, zinemara. Funikularrean jaisten ziren, ilunduta. Eliza azpiko zinema aretoa, luistarrena.</p>

Transkripzioa

-Eta tranbia're bazeon, ez? Juten zana han eh...

-Bai epoka haiyetan ni...

-Funikularreraiño, ala han ingurutara...

-Hua zan Monte Igeldo, baiño hemen zan Benta Berri. Bai, eta haik'e buelta ematen zuen hor, zea, taberna zea hortan...

-Azurmendi?

-Bai. Bai, hor ematen zuen. Gaurko eunian oso desberdiña do, ta ezin da zeatu askotan baiño, hor errebuelta dana, hor ematen zuen.
-Zuek juten ziñaten, Igeldora-eta? Ala ez? Funikularrian?
-Oíñez.
-Oíñez juten ziñaten? Dantzara?
-Zinea, dantzara ezin zan, ez zuen permititzen.
-Nork ez zun permititzen?
-Urtiak.
-Ze, gaztegiya dantzarako?
-Eta zinera juten ziñaten?
-Bai, eta geo jetxi funikularren. Hortako bagendun dirua baiño iyotzen bagiñan ba diru gutxiyo, oíñez, ta jetxi nola gaba zan hobeto etortzen zan funikularra.
-Ta jende asko juten zan zinera?
-Betia eoten zan beti!
-Bai?
-Bai, bai.
-Hemen ez zeon zinerik?
-Ez. Gaurko eunian bado zea hortan, Benta Berriko zea hortan baiño, zinea hola ez, eliza azpin zeon bat, El Pudri, ez dakit zergatikan deitzen ziyen, baiño eliza atzian zeon ta hua gehiyena ibiltzen zuen ba Los Luises. Ta geo hua kentzen beste zineik hemen, ez goatzen.
-Ta, asko juten ziñeten zuek zinera? Dirua zeonian bakarrik?

18. San Sebastian eguna Antiguan

- **Erref:** DON-024/027
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:49:00. **Bukatu:** 00:50:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Antiguako festak. San Sebastian egunean ez zen ezer egiten; gero luistarrek danborrada atera zuten. Aurretik bai, amaren garaian erromeriak izaten ziren. "Donosti Zaharra" tabernako giroa.</p>

Transkripzioa

-Antiguan, jairik-eta eoten zan? Ze ospatzen zan?

-San Sebastian euna, baiño goizian tanborrada iten zuen klao Francon denboan nik hoi da ezautu detena, ta ez zan ezer'e iten, ta tanborrada Los Luises, atea zuen azkenian, kosta zan baiño, hoi iten zan tanborrada, geo ya goizian ez zan ezer'e eoten. Baiño zaharrak lehenokuak, kontatzen zuen nere amak behintzat esaten zuen, hemen Matia kalean, izena're esaten zuen 'lo que pasa es que' ya, ahaztu're in zaizkit. Izaten zala ba San Sebastianetan ta berbenak eta epoka haiyetan, izaten zala, karo beak ere hamen nola bizi zian ba askoik ez zian izaten. Baiño geo hemen, Matia kalean, Casimiroko zea hortan, uste det bueno, hor traste samarrak uste det ziala, eta amak kantziyuak'e esaten zitun horkuak: "si quieres pasarlo bien, vete a donde quien" o, "vete al Donosti Zaharra", Donosti Zaharra deitzen ziyen horrei! Uain, pixka bat zeatzen...

-Donosti Zaharra?

-Bai, Donosti Zaharra, ta uste det, hor bueno...

-Anbientia hor eoten zan orduan, girua? Baiña hori, gerra aurretik?

-Bai, hoi ya nik, ez det ezautu.

19. Antiguako tabernak

- **Erref:** DON-024/028
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:50:24. **Bukatu:** 00:52:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Tabernara gizonak joaten ziren, emakumeak ez. Antiguan zeuden tabernak aipatzen ditu: Xexena, Bar Navarro... Bertsolaririk ez zuen ezagutu berak; herri txikietan izaten ziren.</p>

20. Hernanira dantzara, oinez; janzkera

- **Erref:** DON-024/029
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:52:23. **Bukatu:** 00:54:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Hernanira joaten ziren dantzara, oinez. Taldean, barrez. Oinetakoak: alpargatak eta zapatak. Jaietako arropa eta aste barrukoa ezberdinak. Hernanin tela erosi, eta amak josten zizkion soinekoak. Erreterian ere izaten zen tela merkatua; tranbian.

21. Perratzailea eta ikatz saltzailea

- **Erref:** DON-024/030
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:54:36. **Bukatu:** 00:56:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Behia perratzeraz Benta Berri azpira eramaten zuten, Martin Arizetarengana. Ikatz saltzailea. Ekonomia ikatzarekin zebilen. Kanilako ura. Ur murrizketak izan ziren garaian, ur bila joaten ziren.</p>

22. Kontrabandoko ogia; desagertutako baserriak

- **Erref:** DON-024/031
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:56:31. **Bukatu:** 01:00:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Kontrabandoko ogia, gose garaian. Baina kontrol handia zegoen. Errotak. Andrestegi inguruan zeuden baserriak aipatzen ditu: Berioazpi, Beriogain... auzokoak elkarrekin ibiltzen ziren. Mendira joaten zirenean, bakoitzak zerbait eramaten zuen: sagardoa, tortilla, intxaurrak...</p>

23. Gaztainak eta gereziak batzen

- **Erref:** DON-024/032
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:00:07. **Bukatu:** 01:01:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:

<p>Etxean dolarea zuten, eta sagardoa egiten zuten. Nonbaitera joaten zirenean, berak sagardoa eramaten zuen. Ez zuten intxaurrik, ezta gaztainarik ere. Gaztainak eta gereziak batzen beste baserri batzuetan ibili izan da. Berio-Azpiko arbolak eta abereak.</p>

24. Desagertutako baserriak II

- **Erref:** DON-024/035

- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:02:50. **Bukatu:** 01:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

<p>Desagertutako baserriak: Almorza, Arritetxe, Borda, Amezketak... Andrestegi zegoen tokian ere bidea dago orain; Ibaetako campusa.</p>

25. Hondartzara gutxitan, lehengusuekin

- **Erref:** DON-024/040
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 01:06:23. **Bukatu:** 01:08:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Mezetara joaten ziren, ez joatea bekatua zelako. Dena zen bekatua. Hondartzara ez ziren joaten, urruti geratzen zelako; lehengusuekin joaten zen gero. Bainujantziak non egiten zituzten, gonadunak.

26. Eskolan erdaraz, lagunekin euskaraz

- **Erref:** DON-024/042
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:08:53. **Bukatu:** 01:10:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Beti euskaraz egiten zuten, debekatuta zegoen arren; eskolan erdaraz ikasten zuten, eta erdaraz erantzun. "Hable en cristiano" guardia zibilek esaten zuten. Lau kuartel zeuden, eta kartzela.

27. Antiguako errekek; lixiba

- **Erref:** DON-024/043
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:10:41. **Bukatu:** 01:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Antiguako errekek: Lizarriturrikoa, Konportakoa, Andrestegi ingurukoa... amak errekan garbitzen zuen arropa. Anila, arropa zuritzeko. Han ez zen arrantzarik egiten. Angilak izaten ziren errioan. Igelak ere baziren, Konporta eta Andrestegi artean.

28. Kilkerrak eta barraskiloak

- **Erref:** DON-024/044
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:13:50. **Bukatu:** 01:15:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Kilker bila ere ibiltzen ziren; ura botatzen zuten ateratzeko. Ez zioten uzten etxera eramaten. Barraskiloak ez zituen ezkondu arte jan; lan handia zelako prestatzea. Errekan garbitzen zituzten, jatetxea jarri zutenean. 19 bat urte zituen orduan.

29. Langileak bezero, etxeko jatetxean

- **Erref:** DON-024/045
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:15:43. **Bukatu:** 01:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Jatetxean etxeko janaria egiten zuten, paella ere bai. Langileak joaten ziren hara: igeltseroak... Lantegietako langileek ez zuten denbora asko izaten bazkaltzeko. Bera ere etxera joaten zen bazkaltzera, oinez. Larunbatetan lana. "Sabado ingles".

30. Amonak esaten zituenak

- **Erref:** DON-024/047
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:18:50. **Bukatu:** 01:20:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Amonak kontatzen zituenak: gazte denboran, txoriei begira egoten zirela. Gazte ezkondu eta seme-alaba asko izaten zituzten. Amonak hamar izan zituen, baina zazpi atera ziren aurrera.

31. Lorezalea da; umetan, eskolara eramaten zituen

- **Erref:** DON-024/052
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:25:09. **Bukatu:** 01:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mendirako afizioa zuen berak, baina orduan ez zegoen ohiturarik. Loreak gustatzen zaizkio asko. Arrosak, margaritak. Lore denboran loreak eramaten zituen eskolara; aldarean Ama Birjina jartzen zuten, loreekin.

32. Bide ilunak eta faroleroak

- **Erref:** DON-024/055
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:29:31. **Bukatu:** 01:32:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Bide ilunetan, sustoak. Martintxoneko bidea. Norbait ateratzen bazen bidean... Konportan palanka bati ematen zitzaion bideko argiak pizteko. Faroleroak. Serenoak. Atea itxita izaten zuten beraiek. Baserrietan ez, baina lapurretak hasi zirenean ixten hasi ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com